



UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



**IZENBURUA:**

BAT eta BAT HAMAIKA. Beste urrats bat aspaldiko elkarlanean  
Getxon

**EGILEA:**

Alaitz Villate eta Koldo Iturbe

**DATA:**

2018/05/17

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
www.udaltop.eus



## LABURPENA

---

### ***Nola hasi ginen?***

Iaz Euskaltzealeon Topaguneko kideok *Euskarak 365 egun* dinamikan eman beharreko urratsak adostu genituen eta udaberri hasieran EUSKARALDIAren berri izan genuen. Bizarra Lepoan Euskara elkarteko kideok argi izan genuen Udalarekin harremanetan jarri behar genuela lehenbailehen egitasmo horri heldu ahal izateko.

Hori dela eta, uztailean egin beharreko azterketa eta kalkulu ekonomikoak eginda, lehenengo bilera izan genuen. EUSKARALDIA Getxon aurrera eramateko langile berri baten kontratazioa ezinbestekotzat jo genuen eta Getxoko Udalaren baiezkoko borobila jaso genuen. Baiezkoa, hitzarmenean gauzatu zen 2017an. EUSKARALDIA Getxon aurrera eramateko langile bat kontratatu dugu 2017ko irailetik lanean dagoena: hasieran 4 orduz eta ekimena hurbildu ahala 6 ordutara.

### ***Zer egin dugu?***

11 egun euskaraz egitasmoa 2018ko azarotik abendura gauzatu den arren, argi izan dugu bai udalak bai elkarteak egitasmoa herriari zabaldu behar geniola. Horrela, urria eta azaroa bitarte herriko euskaltegi, ikastetxe, kultur eta kirol elkarteei azaldu genien zein zen gure asmoa. Eta asmo hori, abenduaren 3ko ekitaldi jendetsuan publiko egin genuen Areetan. Mila lagun baino gehiago batu ginen bertan, euskararen alde.

### ***Getxoztarrak.eus zertarako?***

Herritarrei zer egin nahi dugun eta nola egin nahi dugun azaltzeko, getxoztarrak.eus komunitate digitala sortu dugu. Bertan, ekimenaren nondik norakoak azaltzen dira. Web gune honek ahobizi, belarriprest edo irribizi izan nahi duten herrikideekin harremanetan

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



manetan jartzeko aukera ematen digu eta norbanakoak bere atxikimendua eman dezake.

Getxon jadanik atxikimenduak jasotzen ari gara, Maiatzaren 24an *Getxon 24 ordu euskaraz* egitasmoa egingo dugulako. Bi helburu ditu ekimenak: Batetik, EUSKARALDIAREN publizitatea egin nahi dugu eta 11 egun horietan biziko dugunaren entsegua egin egun oso batez eta, bestetik, AHOBIZI, BELARRIPREST edo IRRIBIZI izatea zer den ondo azaldu getxotarrei. Egun bakarrean bizitako esperientzietatik ikasi nahi dugu 11 egun horietan egin behar ez direnak eta egin beharrekoak ondo zehazteko.

### ***Urratsez urrats aurrera***

Horrez gain, auzoetako talde sustatzaileak martxan ditugu jadanik. Apirilaren 24an beste herrietako esperientziak ezagutzeko mahai – ingurua antolatu genuen: Derio, Lasarte eta Aguraingo lagunak izan genituen gurean. Euskarak 365 egun zurrumurrurik gabe ekimenarekin elkarlanean ari gara. Ekimen honek euskara, immigrazioa eta emakumea gaiak lantzea du helburu.

Horretarako, apirilaren 26an Xabier Aierdirekin solasaldia antolatu genuen. Berarekin batera Hajar Samadi (Eibar), Nihad Ben Omar (Leioa) eta Katia Henriquez (Getxo) parte hartu zuten solasaldian euskara eta immigrazioaz berba egiteko. Maiatzaren 10ean berriz, Idurre Eskisabel izango dugu emakumea, immigrazioa eta euskara gaiei heltzeko. Getxoko hamaikakoa maiatzaren 9an aurkeztu dugu eta lanean dago.

Informazio puntuak egongo dira udaberrian herriko hainbat komertziotan eta maiatzeko zenbait asteburutan informazio guneak jarriko ditugu herriko txoko ezberdinetan.

### ***Datorkiguna:***

Uda ere bero datorkigu: herriko jaietan zein kultur eta kirol ekitaldietan informazio eta izen emate puntuak jarriko ditugu EUSKARALDIAREN berri emateko. Getxon irailetik au-

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



rrera azken txanpari ganoraz ekingo diogu eta gure onena emateko prest egongo gara.  
Orain arte posible egin badugu, 11 egun euskaraz lortuko ditugu!